

10th September 2018

## Izaga-Gereta: Oñatiko familia bat Deban

Niretzat sorpresa bat izan zen. [Eresoinkaren \[http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/eresoinka/ar-27175/\]](http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/eresoinka/ar-27175/) 80. urteurrenaren kariaz erakusketa eder bat antolatu zen duela urte pare bat. Donostiako Okendo kultur Etxera ikustera joan eta hara non ikusten dudan oñatiar bat talde ospetsu hartako kide gisa: "José Izaga (Oñati)". Ez neukan horren berririk, baina Oñatin Izagatar bat ezagutua nuenez -ordurako hilda zegoen Antonio Izaga- haren alarguna eta familiarengana jo nuen (Usakoko Enparantzatarrak) eta baietz esan zidaten, Jose Izaga, Pepe, Antonioren osaba zela, gaztetan Debara joana eta beste oñatiar batekin ezkondua, Carmen Gereta.



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEgms4S0ethdls13la5ep99d3l2e\\_xY5wUSAUaDnms2p-tg7ZsXRiGmHu2unz95e1j0FVf3glDwzqbNREfy8np\\_7p1NqU-E9k7R6owLzbnwrtShC2Jeu3\\_ml4kl0ge6clIPuVfx1zxCsusrX/s1600/356.JPG](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEgms4S0ethdls13la5ep99d3l2e_xY5wUSAUaDnms2p-tg7ZsXRiGmHu2unz95e1j0FVf3glDwzqbNREfy8np_7p1NqU-E9k7R6owLzbnwrtShC2Jeu3_ml4kl0ge6clIPuVfx1zxCsusrX/s1600/356.JPG)]

**Jose Izagaren aipamena Eresoinkaren 80. urteurreneko erakusketan**

Haritik tiraka jarraitzea erabaki nuen eta hara non egiten dudan topo zinez interes handia duen familia baten historiarekin. Peperena aberatsa bada, haren seme Jose Mari Izaga Geretarena ere oso interesgarria baita: Gudaria, Realeko Jokalaria, Debako mugimendu antinuklear ospetsuko liderretako bat... Peperen biloba eta Jose Mariren semea den Jose Mari Izaga Reiner adiskideari zor dizkiot hemendik aurrera idatziko dudanaren gehiena eta argazkiak. Barkatuko didate debarrek, eurentzat hau guztia arras ezaguna izango delako, baina nire helburu nagusia Izaga-Gereta familiaren berri oñatiarrei ematea da, ezagutu beharreko historia delako. Eta bide batez, Oñatiko Udalari bukaeran egingo dudan proposamen bat luzatzea.

## **Jose Izaga Garaizabal**

Gatzagan dute jatorria Izagaterrek. Dorletako elizan ba omen daude Izagartar batek oparitutako kuadroren batzuk ere. Baina aspalditxotik du familia honek harremana Oñatirekin. [Juan Esteban Izaga \(1797-1837\)](http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/74879) [http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/74879] musikari, politikari eta legelaria da hauetako bat eta honen anaia Ignacio María gure lerro hauetako sendiaren arbasoa.

Jose (Pepe) Izaga Garaizabal 1888an jaio zen. Bakardadeko Ama kalean zegoen Izagatarren etxea. Gazte-gaztetatik erakutsi zuen bere bizitza erabat baldintzatuko zuten bi gauzengatik: musika eta abertzaletasuna. Abertzaletasunari dagokionez, bere biloba Jose Marik entzuna du sarri etxean bere aitonak istiluren bat izana zuela gaztetan karlistekin Araozko baserritarren botoen borrokan. Beste alde batetik. Mikel Aizpuru historialarik [Gipuzkoako lehenengo jelkideen zerrenda egin zuenean](http://www.academia.edu/24067574/2015_AIZPURU_Gipuzkoako_jelkideak_1904-1923) [http://www.academia.edu/24067574/2015\_AIZPURU\_Gipuzkoako\_jelkideak\_1904-1923] , Jose Izagaren erreferentzia agertzen da Deban 1915ean. Nola abertzaletu zen? Agian urrutitxo joatea da, baina lerro hauek ez direnez ikerketa akademiko bat, ausartu egingo naiz hipotesi bat mahaigaineratzen: garai haietan Felipe Zulueta oñatiarra zen jelkideen buruzagietako bat eta ezaguna da zuluetarren eta izagatarren artean harremana zegoela. Ez da beraz zaila ondorioak ateratzea.



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEgqocWHSDB7F65VQB\\_5Ne47jTwSqW6SlxngXdbj7K0Q82J68vK2fHLYXWNI1W7ob3RhG59GwDN40jHp2vcYYAX8fHoO2B2vcN2mXArUVzlobOzXvwqo\\_7UviMvWzoogEFpy-hpLPDQ45GD8S/s1600/Familia+Pepe+Izaga%252C+Carmen+Guereta%252C+Jose+Mari+y+Miren.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEgqocWHSDB7F65VQB_5Ne47jTwSqW6SlxngXdbj7K0Q82J68vK2fHLYXWNI1W7ob3RhG59GwDN40jHp2vcYYAX8fHoO2B2vcN2mXArUVzlobOzXvwqo_7UviMvWzoogEFpy-hpLPDQ45GD8S/s1600/Familia+Pepe+Izaga%252C+Carmen+Guereta%252C+Jose+Mari+y+Miren.jpg)

]

## Izaga-Gereta fasmilia gerra aurretik: Pepe, Carmen, Jose Mari eta Miren

Garai hartan gobernuak banatzen zituen herrietako banden zuzendari plazak. Jose Izagak Debakoa irabazi zuen eta hara joan zen bizitzera, bandako zuzendari eta musika irakasle lanbidez. Ordurako bazuen harremana Carmen Gereta oñatiarrarekin eta hala mantendu zuten. Ezkondu bitartean Zumaiako kolegio internatu batean egon zen Carmen (1871an sortutako Colegio María y José?). Bitxikeria gisa kontatzen da familian, Jose kolegio horretako meztara joaten zela mezetan organoa jotzera eta biek ezagutzen zuten pieza jakin bat jotzen ziola neskalgunari korotik, bera zela adierazteko. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten: Gure testu honetan hurrengo protagonista izango den Jose Mari eta Miren.

Ez noa gehiegi luzatzera -egia esan gauza gehiegi ere ez dakit- baina gerra aurretik Pepe Izagak Deban bizi izan zuena ondorengo bi argazki hauetan laburbil daiteke: musika eta enpresa. Fabrika bateko bazkide izan zen, baina krisiak eraman zuen eta zorrak ordaintzeko Oñatiko

izeba Guadalupek herentzian utzitako baserriren bat ere saldu behar izan zuen. Belauntzi bateko bazkide ere izan omen zen.



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEhz4-6S\\_OYtMHQnNqF0s9gH00vdFKM00YdqDhYtzL22DcgmZwbr55Qp7LYYhIMlCggzHnVun8U2qLyFCNbz-bUstA2XDufFWa-anxfo-b2vVN\\_L7-nBGjCzxbIguF7M3\\_aryJI9J4HMzIJ/s1600/Banda+de+Deba%252C+Pepe+Izaga.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEhz4-6S_OYtMHQnNqF0s9gH00vdFKM00YdqDhYtzL22DcgmZwbr55Qp7LYYhIMlCggzHnVun8U2qLyFCNbz-bUstA2XDufFWa-anxfo-b2vVN_L7-nBGjCzxbIguF7M3_aryJI9J4HMzIJ/s1600/Banda+de+Deba%252C+Pepe+Izaga.jpg)]

**Debako Bandako zuzendari gerra hasi aurretik**



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEiLNPy2ChpkAYuzQWCdibpacKDPjHrWVBsBxiQVQyDyhel1twoWNfU11BiY5pW91T3xoZ0RAUECRJ1Pc1xi5TDIMBYkLiK306F9SoXLNgWRvC2Xs0bN45dZnrVPPJZjjOFy0Rd\\_LIBFLHym/s1600/IMG\\_1628.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEiLNPy2ChpkAYuzQWCdibpacKDPjHrWVBsBxiQVQyDyhel1twoWNfU11BiY5pW91T3xoZ0RAUECRJ1Pc1xi5TDIMBYkLiK306F9SoXLNgWRvC2Xs0bN45dZnrVPPJZjjOFy0Rd_LIBFLHym/s1600/IMG_1628.jpg)]

### **Pepe Izagaren Debako lantegia, azkenean itxi beharra izan zutena**

Gerrarekin dena aldatu zen. Abertzaleak izanda, Izagatarren bizitza erabat aldatu zen. Ama-alabak herrian geratuta, Semea gudari joan zen (gero jarraituko dugu berarekin), baina aitak -ez zen hain gaztea- beste lan batzuk egin behar izan zituen Bizkaian batez ere, azkenean 1937ko ekainean Santanderren barkoa hartu eta Euskal Herri kontinentalera alde egin behar zuen arte, Sarara konkretuki. Han murgildu zen gorago aipatutako Eresoinka egitasmo ederrean, Debara gerra amaitu eta nahikoa goiz itzuli zen arte.



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEjdRODHx0goIG3cojCk\\_uRmpm5Tcr6Mx8qJRN51F0TL2Uz\\_yQ3643KSpd7\\_5vUIaxcWQL6gs32FAElwPgojjAXg4\\_xHlpVkdKRlc1610e0G82YEjdZWkVPIvr\\_pYP4Y29EV-BbPD\\_GPR\\_97/s1600/Le+Belloy+Aurrekua+31.07.38.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEjdRODHx0goIG3cojCk_uRmpm5Tcr6Mx8qJRN51F0TL2Uz_yQ3643KSpd7_5vUIaxcWQL6gs32FAElwPgojjAXg4_xHlpVkdKRlc1610e0G82YEjdZWkVPIvr_pYP4Y29EV-BbPD_GPR_97/s1600/Le+Belloy+Aurrekua+31.07.38.jpg)]

**Pepe Izaga Eresoinkaren egoitza zen Belloy gazteluan aurrekua dantza egiten.**

Lana galduta, kafe etxe baten ordezkari hasi zen Pepe Izaga. Eta bandak zuzentzeko debekua -zigorra- amaituta, berriz plaza eskatu zuen. Legazpin eman zioten lehenengo baina ez zen han hasi (familiak zerbait arraroa gertatu zela sumatzen du, baina ez daki ondo zer den). Errioxako Ceniceron izan zen hurrengoa, baina itzuli egin zen berehala, ez zitzaiolako gustatu. Azkenean Lekeitioko banda zuzentzeko plaza lortu zuen baina tronbosi batek jota gaixotu egin zen eta ez zuen joaterik izan. 1958an hil zen. Beti umoretsu, begirune handia zion Debako herriak eta itzal handia utzi zuen. Horregatik erabaki zen bera hil eta urte dexentera herriko erraldoien konpartsako kide bat bere irudiarekin egitea. Pentsa daitekeenez, José Ignacio Urbietak egin zuen erraldoia, Debak eman duen beste gizon ospetsu bat, Peperen seme Jose Marirekin Realean jokatutakoa, besteak beste. Peperen alaba

Mirenen ondorengoek eramaten dute erraldoia herriko jaietan, Arostegi-Izagatarrek.



[<https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEiuQvRhSld82ePYSyeKLE59S9hY5gSs7YfAXnQEANI1k9q9cGEWrXBCUc8rAMS3794fDxjbPPimRVieAgZqA6vSaWrq8MMbbPrwgM6DC6Mif4GxV-xZxKvluoe0PFAYm5aN2DVdMPJVr3bE/s1600/Pepe+Izaga+debarren+eguna+2011.JPG>]

**Arostegi-Izagatarrak dira Peperen erraldoia eramatearen ohorea dutenak**

## **Jose Mari Izaga Gereta**

Deban 1916an jaio zen Peperen semea, hau ere herrian miresmen handia jaso eta itzal handia utzitakoa. Saseta bataloiko kide izan zen gerran. Santoñan atxilotu eta ondoren kartzela eta behartutako lanak errepideak egiten hainbat tokitan ([Carmelo Urdangarinek Gaintxurizketa aipatzen du \[http://www.ostolaza.org/archivos/publicaciones/53-Jose-Maria-Izaga-un-debarra-destacado.pdf\]](http://www.ostolaza.org/archivos/publicaciones/53-Jose-Maria-Izaga-un-debarra-destacado.pdf) horietako bat, baina nik Aritxulegi esango nuke izan zela).



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEiWOikv7Tjm4bMnNC-ah8FiWnrLU9s8hu1ujQHJ9CweW2z\\_nlY1b\\_dqCH3AgpMTYNkzcfxKqwWRPIS1I-\\_7M1DoD4LCzA9WYdmVnxQoQBhyphenhyphenMhOJw4z8GwSj20KWudl88LHnHuT\\_XoUNFhvM/s1600/Inkedintxorta\\_LI.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEiWOikv7Tjm4bMnNC-ah8FiWnrLU9s8hu1ujQHJ9CweW2z_nlY1b_dqCH3AgpMTYNkzcfxKqwWRPIS1I-_7M1DoD4LCzA9WYdmVnxQoQBhyphenhyphenMhOJw4z8GwSj20KWudl88LHnHuT_XoUNFhvM/s1600/Inkedintxorta_LI.jpg)]

### **Jose Mari Izaga gudaria Intxortan**

Gerra aurretik ere futbolean aritua zen Jose Mari Izaga, hasieran Deban eta gero Realean, 1935-36 denboraldian. Horregatik, gerra ondoren espainiako liga "normalizatu" zenean Izaga bere esklabutzarik berreskuratu zuten eta Realera itzuli atzelari gisa aritzeko, 1944an erretiratu zen arte.





[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEilB41r7h\\_rB9HqSD0uuE-kjhwrpAIS7AmJtK\\_wiDY28A-7QmMotE62G95dH-A-Du2xT7QAGITc0DsfGoLoAL6gJ3A7LctyXKGLF1Gi95iT9-iz6w\\_cFZA\\_7SqKpW2\\_XbtfaaUCuhID7t6H/s1600/Izaga+despejando%252C+Atocha%252C+el+portero+es+Eduardo+Chillida.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEilB41r7h_rB9HqSD0uuE-kjhwrpAIS7AmJtK_wiDY28A-7QmMotE62G95dH-A-Du2xT7QAGITc0DsfGoLoAL6gJ3A7LctyXKGLF1Gi95iT9-iz6w_cFZA_7SqKpW2_XbtfaaUCuhID7t6H/s1600/Izaga+despejando%252C+Atocha%252C+el+portero+es+Eduardo+Chillida.jpg)]

## **Izaga Atotxan 1943an. Bere atzean, atezain lanetan, Eduardo Chillida**

Futbola utzi ondoren Jose Mari Izagaran beste garai bat dago, benetan aberatsa. Ez da nire helburua horretan murgiltzea, bestea beste nik baino askoz ere hobeto egin zuelako bere garaian Carmelo Urdangarinek, bere lagun handia izandakoa. Gorago jarri dut Urdangarinen testuaren lotura, interesa duenarentzat. Baina laburpen gisa esan beharko da hainbat eta hainbat esparrutan benetako liderra izan zutela debarrek Izaga: kirola, enpresa mundua, etxebizitzaren kooperatiba... eta batez ere Deban garai hartan sortu zen mugimendu antinuklearra.

Aita, ama eta semea Oñatiko kanposantuan daude ehortzita, Izagatarren panteoian. Baita Jose Mariren emazte Ilse Reiner ere, aita alemana zuen debarra. Jose Mariren seme Jose Mari Izaga Reinerrek hori esan zidanean ezustea izan zen niretzat, baina aldi berean garbi erakusten du ez zutela inoiz Oñatirekiko lotura hautsi.

Iruditzen zait Oñatiko herrian ere zerbait egin daitekeela oñatiar ezezagun hauen historia zabaltzeko. Eta berriki [Noticias de Gipuzkoa egunkarian proposatutakoa](https://galdosirazabal.blogspot.com/2018/09/un-gigante.html?q=izaga) [<https://galdosirazabal.blogspot.com/2018/09/un-gigante.html?q=izaga>] berrestera nator hona: izugarri polita izango litzateke Oñatiko Udalak gure hurrengo jaietan herriko erraldoi eta txorimaloekin batera Pepe Izagarena ere ateratzea, Debako Udalari hala eskatuta. Bere garaian Debako herriak erabaki bazuen oñatiar hau erraldoi bihurtuz betirakotzea, ez al da legezkoa Oñatin ere une zail haietan (1937-1939) Euskal Herriaren izena eta izana Europan zehar zabaldu zuen Eresoinka talde heroikoaren partaide izan zen txantxikuarekin gutxienez detaile xume bat izatea? Hori ere memoria historikoa egitea da. Hala bedi.



[[https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEjteYh4gi5y7S\\_FJISuJiFn0mMWZ3aCz4kGjGxgHntUAzGIJ5btF0SFuwPguNtTPNSFprOM0XWclmS5yO27rVc6zR6cJD-qvm-mXcu05C1f6HXXlvh3QpaL99vB3Nevbp\\_ztuY4Dq00N4k3/s1600/IMG\\_9630.jpg](https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEjteYh4gi5y7S_FJISuJiFn0mMWZ3aCz4kGjGxgHntUAzGIJ5btF0SFuwPguNtTPNSFprOM0XWclmS5yO27rVc6zR6cJD-qvm-mXcu05C1f6HXXlvh3QpaL99vB3Nevbp_ztuY4Dq00N4k3/s1600/IMG_9630.jpg)]

Publicado 10th September 2018 por [Iñaki Galdos Irazabal](#)

Etiquetas: [Carmen Gereta](#), [Felipe Zulueta](#), [Iñaki Galdos Irazabal](#), [Jose Izaga Garaizabal](#), [Jose Mari Izaga Gereta](#), [Jose Mari Izaga Reiner](#), [José Ignacio Urbieta](#), [Juan Esteban Izaga](#), [Mikel Aizpuru](#)



Añadir un comentario



Escribe tu comentario

